

PLAZA BERRI

ZIZURKILGO HERRI ALDIZKARIA

12-9-21 4.ALEA

Talaiatik lehen urteari begira

4. ORR. ►►

U-21
hauteskundeak

3. ORR. ►►

Autokonpostaia,
alternatiba
erreala

8. ORR. ►►

Zizurkilgo azoka
berezia
urriaren 14an

11. ORR. ►►



KRONIKA

Sakabanaketaren ondorio larriak begi bistan

Zizurkilgo Udalak Euskal preso-
soen sakabanaketa politika salatu
zuen abuztuaren 10ean egindako
ez ohiko Udalbatzan.

Abuztuaren 7an iritsi zen albiste triste: Mikel Egibar preso zizurkildarraren emazteak eta seme-alabek auto istripu larria izan zuten Zue-
ra-ko espexetik bueltan zetozela, Zaragozan. Presoen sakabanaketak familientzat dituen arriskuak lehen ere behin baino gehiagotan salatu izan dira, eta zoritxarrez, oraingoan gertukoak ziren ondorioak jasan zituztenak: Mila, Eñaut eta Irati.

Ez ohiko udalbatza

Familiarekin eta herritarrekin hitz egin ostean, Udalak ez ohiko Udalbatza deitu zuen abuztuaren 10erako. Bertaratu ziren Bilduko 6 zinegotzi eta EAJko bakarren aldeko botoekin salaketa eta elkartasun adierazpena onartu zen. Adierazpen horretan sakabanaketa politikak dakarren sufrimendua deitoratzen zen lehenik, eta ondoren, sakabanaketa garai berri honetan orain-

zen. Lehenean elkartasuna adierazi zuen Udalak. "Zizurkilgo Udalak elkartasun osoa adierazi nahi die Mikel Egibarren gertukoiei, bereziki, ospitalean dauden senitartekoei, eta baita herrian sakabanaketaren ondorioak pairatzen dituen orori ere". Bigarrean beste politika bat aldarrikatzen zen. "Eskatzen dugu sakabanaketaren amaiera, preso guztien Euskal Herriratzea, gaixotasun larriak dituzten presoek askatzea eta zigorra beteta dutenen askatzea". Azken Espainiako eta Frantziako agintariei. Jarraian, 3 puntuko adierazpena onartu

dik are ulertezinagoa den mendeku neurria dela azpimarratzen zen. Horrela, Gernikako Akordioan eta Aieteko konferentzian esane jarraituz, espexetik bueltan berri baterako pausuak emateko eskatzen zitzaizkien emateko eskatzen zitzaizkien agintariei. Jarraian, 3 puntuko adierazpena onartu

Izan ere, Udalbatzaren ondoren, elkarretaratze jendetsua egin zen Joxe Arregi plazan, aurreko egunetan P.M. Otaño plazan egin zirenen moduan. Herritarrek emandako erantzuna nabarmentzekoa izan zen.

Zaurituak, onera

Zorionez, azken asteetan onera egin dute auto istripuan zauritutako 3 herritarrek. Uneotan etxean dira guztiak osaketa prozesua jarraitzen. Horrelakoak berriz ez gertatzeko, Euskal Preso-
soen sakabanaketa politika amaitzeko aldarri ozena egin zuen Zizurkilek.

Las graves consecuencias de la política de dispersión

El 7 de Agosto, la esposa y los hijos del preso zizurkildarra Mikel Egibar sufrieron un grave accidente de coche cuando regresaban de visitarle en prisión. Los 3 tuvieron que ser hospitalizados, y aún hoy, siguen en proceso de recuperación.

Pleno extraordinario

Tres días después, el Ayun-

tamiento de Zizurkil celebró un pleno extraordinario para aprobar una moción de solidaridad y reivindicación. Con los votos de Bildu y PNV, se aprobó el texto que contenía 3 puntos principales. En la primera, el Ayuntamiento de Zizurkil expresó "su total solidaridad a los allegados de Mikel Egibar, en especial a los familiares hospitalizados, y a todos los ciuda-

danos y ciudadanas que sufren las consecuencias de la dispersión". En el segundo punto se pidió un cambio en la política penitenciaria; y en tercero, se hizo un llamamiento a las y los zizurkildarras a participar en las movilizaciones por encima de las diferencias políticas. Es de reseñar la respuesta ciudadana, ya que las movilizaciones fueron multitudinarias.

ALBISTEA

U-21, hauteskundeak ate joka

Eusko legebiltzarra berrituko da hilabete barru. Legez kanporatze estrategia gainditu ostean, alderdi guztiak aurkezten diren Legebiltzarrerako lehen hauteskundeak izango dira.

Bolo bolo zebilen kontua zen, eta abuztu amaieran baieztatu zen. Hauteskunde aurreratuak izango ditugu Euskal Autonomia Erkidegoan. Krisiak markatuta aurreratu zituen hauteskundeak Patxi Lopez lehendakariak, eta zalantza gabe krisiari eman beharreko irtenbideen gainean eztabaidatuko dute alderdiek. Baina bakegintza eta normalizazio

prozesua ere aipagai izango dira derrigor, hauteskunde bezperan beteko baita urtebete ETAk borroka armatua uztea erabaki zuenetik. Hurrengo legebiltzarrak bi gai horiek kudeatu beharko ditu: egoera ekonomikoa eta Euskal Herrian normalizazio eta bake eskentoki bat lortzeko prozesua. Ez da erronka makala. Herritarrok dugu orain hitza.

21-O Elecciones a la vista

Apenas falta un mes para las elecciones que renovarán el Parlamento Vasco. La crisis fue el motivo principal por el cual Patxi López adelantó las elecciones, y sin duda, será el tema de debate entre los partidos. Sin embargo, el camino hacia la paz y la normalización de Euskal Herria también estará

el la agenda, ya que la víspera de las elecciones se cumplirá un año del anuncio de ETA de abandonar la lucha armada.



Udaleko alderdiak mintzo

ehbildu

EH Bilduri emandako bozka ez da izango gauzek berdin jarraitzeko. Krisi egoera honetara eraman gaituen eredu iraui eta bestelako garapen mota bat defendatuko dugu. Ekonomia eskubideak bermatzeko tresna gisa garatu behar dugu, ez aberatsen mesedetan.

Euskal Herri burujabea dugu helburu. Baina gure nahiaz haratago, eskubideez ari gara, euskal herritarrek bere etorkizuna erabakitzeke duten eskubideaz. Norabide horretan behingoz pausuak eman behar ditu-

gu. Bide berean, gatazka politikoa eta indarkeria aroa gainditzeko, Gernikako akordioa eta Aieteko bake konferentzia bide orri hartuta, elkarriketa sustatuko dugu, akordio zabalak behar ditugulako Euskal Herrian bake iraunkor eta bidezkoa lortzeko, alde guztietako sufrimenduari amaiera emateko.

EH Bilduren zerrendaburuak beren lanbideetan nabarmendutako pertsonak dira, alderdi jakin bati konprometituak egon ordez, herri honekiko konprometituak.

"El poder no debe ser el objetivo, sino el camino para conseguir un modelo económico más justo y sostenible y para trabajar por los derechos sociales, civiles y políticos"



Hurrengo legealdian krisiak izango du lehentasuna eta egitasmo zehatzak dauzkagu gainditzeko. Horretarako, erakundeak kudeatuko dituen talde prestatua, gaitasun handikoa dugu. EAJ-PNV buru dela, aurreko krisialdian lortu den bezala, oraingoan ere fidagarritasun eta segurtasun handiagoz aterako gara egoera honetatik. Azken legealdian argi geratu da PSE-PP itunak ez duela jakin

Euskadiren beharrei aurre egiten eta Ezker Abertzaleari dagokionez, urrats garrantzitsuak eman ditu baina begi bistakoa da kudeaketa-gaitasuna falta duela.

Krisiaz gain, EAJ-PNVrentzat ezinbestekoa da XXI. mendean Euskadi garatzeko estatus politikoa berria adostea eta bakea eta bizikidetzaren sendotzera bideratutako proposamen eta ekintza politikoa nahiz instituzionaletan aurrera egitea.

"Creemos en Euskadi, tenemos un equipo preparado y comprometido para salir de la crisis"



Euskal sozialistok hauteskondeei aurre egiten diegu argi edukita, Euskadiko, herri, gizarte eta ongizate eredu mota erabaki behar dugula. Krisiari aurre egiteko Jauriritzak ezarritako neurriak aktibatuak daude, baina EAJk eta PPEk eragotzi egin dute gure herririk behar zituen erreforma guztiak. Euren artean erreforma fiskala.

Patxi Lopezen lidergoarekin, Eusko Jauriritzaren ekintzak aurrera egin

dute nahiz eta krisi ekonomiko izugarria egon. Gure helburu guztiak bete ditugu: Zerbitzu publikoak mantendu, enpresei, autonomoei eta ekintzaileei lagundu diegu eta langabeziari aurre egin, Euskadi modernizatuz. Sozialistekin, hau pakearen eta askatasunaren legealdia izan da eta erakutsi dugu alternatiba badagoela eskuinaren murrizketen aurrean.

"Con los socialistas, esta legislatura ha sido la de la paz y la libertad; pero también de un Gobierno vasco que ha demostrado que hay alternativa a los recortes de la derecha"

Urtebete pasatxo bada Joxe Mari Luengo (Azpeitia, 1962) eta Nerea Lizarraga (Zizurkil, 1975) Udalera iritsi zirenetik. Zizurkilgo alkate eta alkate ordeak badakite ez zaiela garai erraza egokitu, Udalaren egoera medio. Elkarrizketa honetan, urtebeteko balantzea egin eta aurrera begira jarri dira.

Urtea pasa da agintera iritsi zirenetik. Zer balorazio egiten duzue?

Nerea Lizarraga: Urtea gogorra izan da. Bi arrazoirengatik: Alde batetik, berriak ginelako, eta bestetik, Udala egoera larrian aurkitu genuelako, bai alderdi ekonomikotik eta baita antolaketa aldetik ere. Nahaspi- la handia topatu dugu, kontra- tu asko nola hala, gaizki egin- dako hitzarmenak ere bai...

Joxe Mari Luengo: Baina aldi berean ilusioz eta gogoz ekin genion legegintzaldiari. Lan talde polita osatu genuen, eta lan talde polita izaten jarraitzen dugu urte bete pasa ondoren. Zinegotzi bakoitzak bere ardu- rak serio hartu ditu.

Azken hamarkadetako egoe- ra ekonomikorik txarrenean aurkitu duzue Udala, nola kudeatu duzue egoera?

J.M.L.: Lehenik auditoria egin zen benetan Udalaren egoera zein zen jakiteko. Honek egoe- ra ekonomikoaren argazkia eman zigun, lehen ere azaldu izan dugun bezala, Gipuzkoa- ko herri zorpetuenetakoa gara. Ondorioz, arduraz, gerrikoa es- tutu behar izan dugu. Aurten-

go aurrekontuak dira horren lekuko.

N. L.: Bai, partida guztiei buel- ta asko eman ondoren osatu genituen aurrekontuak. Badi- ra gastu asko kasik ikutu ezin direnak, finkoak, baina denak gainbegiratu genituen. Horre- la, gastu finkotzat hartzen ziren partida batzuk ere zalantza ja- rri ditugu: Enpresa ezberdine- kin geneuzkan kontratuak be- rrikusi dira, baita telefonoarena ere, energia gastua ere bai... Aurreko urteetan zegoen egoe- rari buelta eman diogu guk, eta zortzi urtean lehen aldiz, iaz eta aurten mailegurik eskatu gabe amaituko dugu urtea.

Beraz, nola ikusten duzue 2013 Udal finantzaketaren aldetik?

J.M. L.: Hitz batean laburtu beharko banu, "zaila". Nereak zioen bezala, ezin dugu iraba- zi baino diru gehiago gastatu, bestela zorra oraindik gehiago gizenduko genuke. Kontuan hartuta, datorren urtean apar- teko sarrerarik ez dela aurrei- zan dugun bezala, Gipuzkoa- ko herri zorpetuenetakoa gara. Gainera, BEZ-aren igoerak ere kaltetuko gaitu. Udalak faktu- rak BEZ berriarekin ordaindu

"Datorren urtera begira, Elbarrenan herri gune txukun bat lortzea izango da lehentasuna"

beharko ditu baina gero ez du BEZ-a desgrabatzen.

Zein izan da 12 hilabete hauetako unerik gogorrena?

N. L.: Adin txikiko zentroaren afera ez da gozoa guretzat. Inoiz ukatu ez dugun arazo bat dago hor, Udala tartean harra- patu du baina konponbidea ez dago gure esku. Aldundia eta bizilagunen artean elkarrizketak bideratu ditugu, eta horretan jarraituko dugu.

Urte honetan azpimarratuko zenuketuen lorpene bat...

J.M. L.: Joxe Arregi plazako era- berritzea abian jarri izana azpi- marratuko nuke, Udalarentzat baldintza onetan. Zizurkil Goian berriz, aparkalekua egitea lortu dugu. Oraindik amaituta ez da- goen arren, herritarrek estimatu dutela iruditzen zait.

N. L.: Nire ustez, parte hartze- ren bidetik egiten ari garen lana

ere lorpen bat da. Sortu dugun web gune berriaren bidez, Pla- zaberri aldizkariaren bidez, edo- ta batzorde parte hartzaileen bi- dez, herritarrek konturatzen ari dira euren iritziak ere balio due- la. Batzordeez gain, herri batza- rrek ere egin dira gaiak horrela eskatzen duenean. Urtebetean ezin da mutur batetik bestera pasa, baina Udala herrira gertu- ratu dugula esango nuke. Ahale- gin horretan jarraituko dugu.

J.M.L.: Egin dugunaz gain, ez egitea lortu dena ere azpimarra- tzekoa da. AHT-ren hondakinak botatzeko Zizurkil Goiko herri kaskoaren ondoan egitea aurrei- kusten zen zabortegia bertan behera uztea lortu dugu, herri- tarrekin eta Adunako Udalarekin elkarlanean alegazioak jarri.

Zizurkilgo saihebidetaren kasuan, atzeratu egin dira lan horiek, ezta?

J.M. L.: Saihebidetaren harira

makina bat bilera egin ditugu Aldundiarekin. Eta argi esan digute: Gaur egun ez dago saihebidetarako dirurik. 21 mi- lioi euroko kostua du eta Bide- gin duten zorrarekin ezin di- tuzte uneotan proiektu guztiak aurrera eraman. Saihebidetarako lehentasuna izaten jarraitzen du guretzat, baina zoritxarrez, legealdi honetan ez dira hasi- ko lanak. Hori bai, bitartean, Aldundiak, proiektuan aldake- tak egiteko aukera eman digu, herritarrek bizi diren guneei gutxiago eragitea lortzeko.

Aldundia aipatuta, bereak dira Joxe Arregi atzeko ze- laiak, kirol ekipamendueta- rako aurreikusiak. Zertan da auzia?

N. L.: Kasu honetan, Aldundiak eta Udalak lehenengo momen- tutik ulertu dugu elkar. Ez dugu ezer sinatu, baina hitzez behin- tzat Aldundiaren baiezkoa

dugu, baldintza batzuen pean, lur horiek Udalari emateko. Une honetan ez dugu finan- tzaketarik kirol ekipamendu horiei ekiteko, beraz presarik ere ez dugu, baina legealdia amaitu aurretik sinatuko dugu akordioa.

Uholdeen irudiak denok di- tugu gogoan. Hori ekiditeko lanik egingo al da?

J.M. L.: Ezer baino lehen, he- rritarrek uholdeen ostean izan zuten jarrera goraipatuko nuke. Laguntza handia eman zuten. Berriz ez gertatzeko lanei dagokionez, duela gu- txi izan dugu Jaurilaritzarekin bilera. Asteasu Erreka bide- ratzeko proiektua dugu esku artean. Proiektuak bere baitan hartzen ditu Asteasu Erreka- to uren bideratzea, Oria Ibaia zabaltu ahal izateko Zubi- musu zubiaren eraberritzea eta paper fabrikaren ibairako

irteera berritzea. 15 miloi eu- roko proiektua denez, zatika egiteko asmoa azaldu digute. Espero dut legealdi honetan egingo izatea.

Espainiako gobernuak egin- dako erreformek zertan eragingo diote Zizurkilgo Udalari?

J.M. L.: Udal erreforma pres- tatzen ari omen dira. Dakigu- nagatik, sekulako kaltea egin nahi digute Udal txikiei, baina oraindik ez dutenez onartu, zain gaude. Enplegu publi- koaren gainean ordea, hainbat neurri onartu dituzte dagoe- neko, gabonetako paga ken- tzeko agindua tartean. Zizur- kilgo udal langileei lehen ere ez zitzaion gainerako langile publikoek ezarritako %5eko soldata jaitsiera aplikatu, eta orain ere gure apustua pagari eustea da. Neurriei aurre egi- ten ahaleginduko gara.

Zer proiektu aurreikusita daude datorren urtean?

N.L.: Inbertsio potolo berririk ezin dugu egin. Lehendik aurreikusitakoei eutsiko diogu. Hor daukagu Joxe Arregi Plaza berriaren proiektua. Oinarrizko proiektua jendaurrean azaldu genuen, eta batzar horretan bildu ziren herritarrei ekar- penak egiteko aukera eman genien. Herritarrek proiektuari hainbat aldaketa egitea propo- satu zuten: Komun publikoak jartzea edota aterpe bat ego- kitzea esaterako. Proposamen horiek gauzatzeko proiektuan aldaketak egin behar dira eta horrek gastua suposatzen du. Finean inbertsio berri bat da. Baina hori lehentasun izango da, herrigune txukun bat ezin- besteko jotzen baitugu.

J.M. L.: Inbertsio handiak ezin- go dira egin, baina bai obra txi- kiak: Adibidez, Pasuseko tune-



ELKARRIZKETA



laren ondoko zebra bidearen aldaketa egin berri dugu. Bada, herritarren eguneroko bizitza hobetzeko era honetako obrak egiten jarraituko dugu.

Orain martxan dauden proiektuei dagokionez, azter dezagun bakoitza zertan den:

- **Zizurkil Goiko aparkalekua:** Proiektuaren erredakzioa amaitzen ari gara. Bukatu bezain agudo, lehiaketa publikoa aterako da aparkalekuaren urbanizazioa enpresa bati esleitzeko. Proiektu hori gauzatzeak aparkalekuan ez ezik, P.M. Otaño Plazan ere aldaketaren bat ere ekarriko du.

- **Pedro Mari Otaño Eskolako obrak:** Leihor berriak jarri genituen, eta baita frontoia zein eskolaren buelta guztia pintatu ere. Lan guztiak amaituta daude.

- **San Migeleko urak bideratzeko lanak:** Proiektua onartuta dago eta aurten bertan hasi eta bukatuko dira lanak.

- **San Millan Eskola ondoko gunea:** Prefabrikatuak kendu genituen, eta orain, herritarrek jolasgunea eskatzen dute bertarako. Inbertsio txikia denez, ez dago ez egiteko arrazoirik eta datorren urteko aurrekontuan sartuko dugu.

Eta luzera begira...

J.M.L.: Ez nuke aipatu gabe utzi nahi hainbat enprekin hitz egiten ari garela Zizurkil Goian etxebizitzak egiteko. Oso zaila da, urbanizazio lanek karga handia baitaukate enpresa eraikitzailearentzat, nahiz eta orain aparkalekuak egun eginda, zerbait aurreratu den. Udalak ez du uneotan eraikitze egokia den lur sailik, beraz erraztasun jarriko ditugu enpresaren bat Zizurkil Goian etxebizitzak egitera anitmatuko balitz.

Beste gai potolo bat: AHT. Zer azalpen edo ohar daukazu herritarrentzat?

J.M. L.: Zuzeneko kaltetuei ba-



Zizurkilgo Bilduren udal taldea asteroko bileraren ondoren.

bes osoa adierazteaz gain, oso kezkatuta gaudela esan behar dugu. Zizurkildarrontzat, kaos izango dira hastear diren lanak. Egunean ehun bat kamioi ibiliko dira Asteasu eta Zizurkil artean. Errepide publikoa da, eta ezin dute itxi, baina erabili erabiliko dute. Dakigunez, gaueko 22:00ak arte ibiliko dira garraio lanean, eta ondoren, gauez, dinamitarekin leherketak egingo dituzte egunez harria ateratzeko.

N.L.: Errekurtsoa jarri genuen Elbarrenan neurri batzuk hartzeko zarata, zikinkeria eta gainontzekoak gutxitze aldera, baina ez dugu kasu egingo diguten esperantzarik. Gainera, azpimarratu behar da AHT-k, zeharkatzen duen herrian kaltea besterik ez duela uzten, ez dute ez zerga eta ez bestelakorik ordaintzen.

Hondakinen kudeaketa ere ahoz aho dabilen gaia da. Zer espero da?

«zortzi urtean lehen aldiz, iaz eta aurten mailerik eskatu gabe amaituko dugu urtea»

J.M. L.: Zizurkil Goian auto-konposta komunitarioa egiteko gunea jartzen ari gara esperientzia piloto gisa. Asmoa Elbarrenan beste gunebat jartzea da. Horretaz aparte, herritarrekin auzoka bilduko gara udazkenetik aurrera denon artean hondakin bilketaren hainbat puntu erabakitzeke: Ordu-tegiak, bilketa gunek...

Giza eskubideak ere aipagai izan dira azken urtean, gerra zibileko fusilatuei egindako omenaldia edo presoan sakabanaketa, esaterako. Azken honen harira, Mikel Egibar presoaren

familiak istripua larria izan zuen. Nola bizi izan duzue?
J.M. L.: Kezka handiarekin, noski. Ematen du gertukoari ez zaiola horrelakorik gertatuko, baina presoan sakabanaketak dakarren arriskua da. Espetxe politika honekin amaitu beharra dago horrelakorik berriro ez gertatzeko. Hori adierazi genuen orduan eta esango dugu berriz. Herrian bi familia ditugu ehunka kilometro eginez astero.

N.L.: Hori gutxi ez eta, orain "Euskal Presoak Euskal Herrira" banderola Udaletik kentzeko agindua iritsi da Urquijo buru duen Espainiako gobernu ordezkarietatik. Udal guztietara bidali dute agindu hori. Udalak elkartu eta neurri horren kontra egin behar dugu. Zapi horrek eskatzen duen bakarra da "euren" legea betearazteko, alegia, presoak etxetik gertuko espetxetara ekartzeko. Etengabe egoera tentsionatu nahian ari dira batzuk.

Beste alorrak motzean:

Gaztedia: Hasieran gaztedia batzordea sortzen saiatu arren, egokiago ikusi zuten herriko gazteek Gazte Asanblada baten sorrera. Udalak pozez hartu du berria.

Kirola: Kirol batzordeari eutsi zaio eta zenbait kontratu eta funtzionamendu berrikusi dira, frontoikoa eta Olaederri kiroldegikoa, esaterako.

Euskara-Hezkuntza: Euskara ikasteko laguntzei eta Udalaren ikastaro eskaintzari eutsi diogu, eta ikastetxeekin elkarlanean ari gara. Ikastolaren kasuan, eraikinaren egoera legalki bideratzeko pausak ematen ari gara.

Kultura: Kultur batzordea eratu da. Herritarrekin batera, egoerari aurre egin eta parte hartzearen bidez, kostu txikiagoan ekitaldiak antolatzen saiatzen ari gara.

Nekazaritza: Baserritarren batzordea eratu da. Bertan lantzen dira Udaletik sektore honi eragiten dizkieten gaiak. Elkarlana dugu oinarri.

Ingurumena: Pausu bat haratago emateko lanean ari gara. Bai hondakinen kudeaketan, bai eraikinaren energia gastuan...

Parekidetasuna: Parekidetasun batzordea eratu da. Emakumea Zizurkilen Bekaren lehen edizioa deitu berria da. Gaiari behar den lekua eman nahian ari gara.

Sozioekonomia-Zergak: Zergak berriro aztertu nahi ditugu, esaterako, bigarren etxebizitza hutsa dutenak zergapezko. Bestalde, Lanbideren diru laguntzaren bidez sei herritar kontratatu genituen 6 hilabetez. Zenbait azpikontraturen orde, zuzenean Udalak kontratatzeke pausak ere eman ditugu. Gure apustua, Udalak atera ditzaken postuak herritarren eskuetan geratzea da.

“En el 2013, la prioridad será conseguir un núcleo urbano funcional y atractivo”

Hace más de un año que Joxe Mari Luengo y Nerea Lizarraga, el alcalde y la teniente alcalde de Zizurkil, llegaron al Ayuntamiento. El primer año, lo califican como “duro”. “Nosotros éramos nuevos en el Ayuntamiento, y la situación económica que nos encontramos era pésima”, remarca Lizarraga. “Sin embargo, tenemos un grupo de gente con muchas ganas de trabajar, cada concejal y concejala se ha hecho cargo de

su área y estamos haciendo las cosas con rigor y seriedad”, añade Luengo.

Presupuestos realistas

La auditoría que finalizó a finales del año pasado arrojaba cifras preocupantes, con casi tres millones de euros de endeudamiento. “Tuvimos claro que había que cambiar la dinámica, bajamos las retribuciones de los concejales y concejalas al mínimo, revisamos cada partida y los

contratos en vigor. Hasta el año pasado se gastaba, y si no llegaban los ingresos, se pedían préstamos. Así no se podía seguir, y por ello, los presupuestos para este año han sido realistas, y, por qué no admitirlo, difíciles”. Si el 2012 ha sido difícil, el 2013 lo será aún más. “No podemos permitir endeudarnos más. Además, la subida del IVA nos afecta directamente, ya que el Ayuntamiento como ente paga pero no desgrava”.

Inversiones

A pesar del estado de las finanzas, hay distintos proyectos en marcha. Han remarcado varios. “En el área de urbanismo ha sido muy importante el inicio de las obras de la plaza Joxe Arregi y el aparcamiento de Zizurkil Goia”, remarca el alcalde. Lizarraga hace hincapié también en el trabajo que se está haciendo en comunicación. “Hemos renovado la web, hemos creado la revista Plazaberri

y en muchas áreas tenemos comisiones participativas. Además en temas puntuales, como la urbanización de Joxe Arregi o el TAV, estamos trabajando codo con codo con los y las zizurkildarras”. Eso sí, el 2013 no habrá grandes inversiones. “Será un año para terminar lo empezado, en especial la urbanización de la plaza Joxe Arregi. Es una prioridad tener un núcleo urbano funcional y atractivo”.

Infraestructuras

Como otras infraestruc-

turas, la construcción del variante de Zizurkil ha sido aplazada. “Desde la Diputación nos han dicho claramente que con la deuda que tiene Bidegi en estos momentos no pueden hacer la variante. Para nosotros sigue siendo una prioridad y seguiremos trabajando en ello” remarca el alcalde.

Otra obra de importancia que reclama el Ayuntamiento es el encauzamiento de Asteasu Erreka para evitar más inundaciones. “Este proyecto prevé el en-

cauzamiento de Asteasu Erreka, el ensanchamiento del río Oria y el acondicionamiento de la presa de la papelera. Espero que se haga en esta legislatura”. En cuanto a las inundaciones pasadas, Luengo ha querido “agradecer” a los y las vecinas de Zizurkil la ayuda prestada en las labores de limpieza.

EI TAV

Los responsables municipales se han mostrado muy preocupados con el impac-

to de las obras del TAV, que comenzarán este curso. “Circularán una media de cien camiones diarios entre Zizurkil y Asteasu. Hemos interpuesto alegaciones para que tengan en cuenta algunas medidas, especialmente cuando pasen por Elbarrena. El TAV es una infraestructura que no traerá más que problemas en los cuatro años que duren las obras. Además, está exenta de pagar ningún impuesto en los municipios donde se construye”, explica Lizarraga.

ERREPORTAIA

Autokonpostaia, zergatik ez?

Egun, Zizurkilen bi aukera ditugu zabor organikoa tratatzeko: Lehena, etxetik gertuen dagoen kontenedorera botatzea da; bigarrena, konpostaia egitea. Bada, gero eta gehiago dira bigarren aukeraren aldeko apustua egiten duten zizurkildarrak. Zabor organikoa sukaldetik etxaurre, baratza edo lorategian daukaten konpostagailura ateratzen dute, eta trukean lurrarentzat aberatsa den ongarrria jasotzen dute debalde.

"Konposta ona egitea oso zaila da", "izugarrizko kiratsa dario", "xaguak eta arratoiak erakartzen ditu etxera". Era honetako aurreiritzi ugari entzuten dira autokonpostaia egitearen inguruan. PlazaBerrik etxean konpostaia egiten duten zizurkildar batzuegan jo du, aurreiritzi hauek egia ote diren galdetuz: Rafa Gonzalez Muñoa kalean bizi da. "Zabor poltsa kontenedorera eramaten duzun denbora bera behar duzu organikoa konpostagailura bota eta hura pixka bat nahasten", baieztatu du. Enrique Gurrutxaga Pedro

Mari Otaño Eskolako guraso elkarteko kidea da, eta zazpi urte daramatza eskola-umeekin konpostaia egiten. "Konposta egitea ez da zaila inondik inora. Pentsa, eskolako umeek egiten dute!". Gurutze eta Eduardo senar-emazteak Zizurkil Goian bizi dira. Duela 25 urte hasi ziren etxean konposta egiten. Abantaila asko ikusten dizkiote, horien artean merkea dela: "Ongarri garestiena baino hobea da konposta lurrarentzat", ziurtatu dute.

Erosoa

Abantaila guzti hauek ikusi-



ta, eta zaborrarekin daukagun arazoak jabetuta, mankomunitateak errazatasunak ematen dizkie konpostaia egin nahi duten herritarrei. Bi orduko ikastaroa egin eta konpostagailua dohainik ematen dute, eta baita konposta egiteko gida bat ere. Rafa Gonzalezek maiatzean egin zuen ikastaroa. "Bizilagunak konposta egiten zuen aspaldiko urtetan, eta hori ikusita animatu nintzen", azaldu du. Etxe atzeko lorategian, baztar batean, izkutuan jarrita dauka. "Ikusten duzu, ez du usainik botatzen!", ohartarazi digu. Gustura dago, sukaldetako arraska azpian, organikoarentzako ontzi handia beharrean plastikozko txiki bat

baitauka eguneko material organikoa konpostagailura botatzeko. "Soilik haragi hezurrik eta haurraren pardelak apartatzen ditugu kaleko kontenedorera botatzeko". Denborarik ere ez du kentzen, "kontenedorera egin beharreko bidaiek kentzen duten denbora bera", adierazi du. Leku aldetik berriz, ez du lur sail handirik eskatzen. 4 metro karratu nahikoa eta sobera direla azaldu du. "Lorategian parrila duen guztiak eduki dezake konpostagailu bat". Hori bai lur sail bat edukitzea komeni da, konpostagailuak lurra ukituz, honen kontra finkatua egon behar baitu prozesua eman dadin. Horregatik, kaleko etxeetan, zailagoa da

egitea, balkoi dexentea behar baita lurrez betetako kaja bat edukitzeko.

Erraza

Eduardo eta Gurutze Zero Zabor filosofiak indarra hartu baino askoz ere lehenago hasi ziren konposta egiten. Lurrarentzako ongarririk bezala baloratzen zen orduan. "Gu autodidakta hutsak izan gara. Zenbait gida liburuetatik eta praktikatik ikasi dugu", adierazi dute. Urteetako esperientzia eta etxe inguruan duten lur eremu zabal baliatuz, era konplexuago batean egiten dute konposta, honen kalitea areagotu nahirik. Hiru fasetan egiten dute. Batetik, ohiko ontzia daukate, eguneroko hondakin organikoa bertan botatzeko. "Hemen sukaldetan sortzen den materia botatzen dugu eta kartoia, papera eta orbelarekin nahasten dugu, 2 edo 3 egunez behin makila batekin

mugitzen dugularik". Ontzi honetan urte bete inguru fermentatzen eduki ostean, aterra eta ormigoizko kaxa handi batera botatzen dute animalia ezberdinen ximorrarekin nahastuta. Hemen beste urte bete estalita eduki, eta azkenik, biltegian gordetzen dute behar dutenean erabiltzeko.

Enriquek eta Pedro Mari Otaño ikasleek soilik orbela, belarra eta baratzeko hondakinarekin egiten dute konposta. "Haurrek botatzen dituzte hondakinak eta haurrek nahasten dute behar denean. Hortik aurrera, bera bakarrik egiten da", ohartarazi du.

Merkea

Otaño baratzeko lurra ongarrizko erabiltzen dute lortzen duten konposta. "Lur gozo-gozoa ateratzen da", gaineratu du guraso elkarteko kidea. Rafa Gonzalezek ere gauza bera egiten du: "Ontzia



Eduardo eta Gurutze euren etxeko konposta biltegian.

azpitik irekitzen da, eta beheko geruzatik hartzen da atxurrarekin, hau baita zaharrena eta helduena egoten den konposta geruza". Eduardo eta Gurutze ere harro daude konpostarekin lortzen duten edukiz gero ez da bestelako ongarririk edo produkturik behar. "Lurrak oreka behar du emankorra izan dadin. Oreka hori mikro-organismoek ematen dute, eta finean, konposta mikro-organismoz beteta dago", azaldu du.

Udala autokonpostaia sustatzen

Elkarrizketatutako herritarrek aipatu bezala, kale-

txeetan konplexuagoa da autokonpostaia egitea. Zailtasun horretaz jabetuta, autokonpostaia egiteko aukera kalean bizi diren herritarren eskura ere jarri nahi du Udalak konpostaia komunitarioaren bidez. Autokonpostaia komunitarioa egiteko lehenengo gunea Zizurkil Goian jartzen ari dira une honetan, eta Elbarrenan beste gunea bat jartzeko lekua aztertzen ari dira. Udalak aztergai duen beste gai bat berriz, zabor organikoa etxean tratatzen duena saritzea da, zaborraren tasetan deskontu bat eginez. Izan ere, ingurumenaren mesedetan egiten badugu, zerrak ez?

Compostaje, ¿por qué no?

Cada vez son más los que tratan la materia orgánica a través del compostaje. Los y las zizurkildarras que hacen compostaje en casa, han garantizado que es fácil, cómodo y barato. "Hice un cursillo de dos horas organizado por la mancomunidad, y a cambio, me dieron el contenedor y un libro", explica el vecino Rafa Gonzalez. Está muy a gusto,

ya que solo necesita un pequeño recipiente para sacar cada día la materia orgánica al contenedor que tiene instalado en el jardín. "Lo tengo más cerca que el contenedor de la calle, y no hay más que echar y mezclar un poco con la varilla. Además, no huele". Enrique Gurrutxaga se encarga de hacer compostaje en la escuela Pedro Mari Otaño. "Fijate

si es fácil, lo hacen los niños y niñas de la escuela", comenta. Según Gurutze y Eduardo también es barato, ya que es mejor que cualquier producto para la fertilidad de la tierra y es gratis. Concientes de estas ventajas el Ayuntamiento de Zizurkil quiere dar la oportunidad de hacer compostaje también a aquellos vecinos que no disponen de una pequeña parcela de

tierra, ya que es necesario que el contenedor este en contacto con la tierra para que se dé el proceso. Lo harán a través de plantas de compostaje comunitario. Ya están construyendo uno en Zizurkil Goia. Al mismo tiempo se está estudiando aplicar un descuento en las tasas de la basura a los vecinos y a las vecinas que traten los residuos orgánicos en casa.

KRONIKA

Autoikaskuntzaren bidetik, euskarara hurbilduz

Matrikulatzeko epea irailaren 12tik 28ra dago zabalik AEKn. Zizurkilgo Udalak dirulaguntza eskainiko die herriko ikasleei.

Euskara ikasi nahi duten herritarrei bidea errazteko asmoz, AEKak eskaintako autoikaskuntza programa babestuko du Zizurkilgo Udalak.

Autoikaskuntzaren bitartez, ikasleek euren aldetik egiten dituzte zereginak, baina tutore baten gidaritzapean. "Astean behin ikasleek

tutoretza izaten dute irakaslearekin eta 25 minutuz-edo biltzen dira, zalantzak argitu, ikas-prozesuaren jarraipena egin, eta egin beharreko lana zehazteko", dio Iban Balerdi Andoaingo AEKako zuzendariak. Bestalde, tutoretza horietaz gain, mintzapraktika saioak daude autoikaskuntza egiten duten ikasleen artean:

aek

"astean behin 5-10 minutuz biltzen dira taldeok eta ikasleak minutu eta erdiz hitz egiteko zerbait prestatuta ekarri behar izaten du".

"Herri txikietan taldea sortzea zailagoa izaten denez, aproposa da ikas-sistema hau", gaineratu du Balerdik. Irailaren 12tik 28ra matrikula azalduta, 943 59 17 04 telefo-

noan edota emailaz andoaingoak@aeek.org-en. Gerora, apuntatzeko arazorik ez da izaten normalean, baina komenigarria da epe horiek aintzat hartzea taldeak osatzeko.

Programa hau babestu eta interesatuei laguntza ematearren, Udalak, batzbestek, matrikularen erdia ordainduko die izena eman eta %80tik gorako bertaratzea lortzen duten zizurkildarrei. "Taldea batera biltzeko ordutegi arazoak edo bestelako eragozpenak dituztenentzat aukera polita da euskara ikasteko eta herritarrek animatu nahi ditugu Udaletik", dio Leire Zubeldia euskara zinegotziak.

El autoaprendizaje del euskara, subvencionado

El Ayuntamiento de Zizurkil apoyará económicamente a los vecinos y las vecinas que se animen a aprender el euskara mediante el método de autoaprendizaje ofrecido por AEK. El alumnado trabaja por su cuenta,

"guiado por un tutor con el que se reúne una vez a la semana y acudiendo también a las sesiones orales de mintzapraktika", dice Iban Balerdi, director del AEK de Andoaín. La matriculación se puede realizar entre el 12

y 28 de septiembre, y el Ayuntamiento pagará la mitad de la misma a aquellos y aquellas que se matriculen y alcancen más del 80% de asistencia.

Para matricularse llamar al 943 59 17 04 o enviar un email

a andoaingoak@aeek.org". Es una buena oportunidad para las personas que tienen dificultades con los horarios y desde el Ayuntamiento queremos animar a las y los vecinos", dice Leire Zubeldia, concejala de euskara.

Armarri berria aukeratzeko prozesua, arrakastatsua



Zizurkil Goiko eta Elbarrenako festetan erakusgai izan ziren zenbait herritarrek egindako armarri proposamenak. Prozesua gidatzen ari den lan taldeak adostutako 10 bat proposamen izan ziren jendaurrean. Herritarrek iruzkinak egiteko aukera izan zuten, gustokoena zein zuten esan edo aldaketaren bat

proposatzeko. "200 iritzitik gora jaso ditugu. Oso pozik gaude, zizurkildarrek parte hartzeko gogoia adierazi baitute", adierazi dute lan taldeak. Iruzkina horiek irakurri eta ondorioak ateratzeaz gain, parte hartzaile guztien artean bi lagunentzako afaria zozketatuko dute lan taldeak Iraila amaieran egingo duen bile-

ran. Abendurako, Belateko gudaren 500. urteurrenarekin bat, prest izango Zizurkilgo armarri berria.



AGENDA

Urteurren seinalatuko azoka berezia

"Baserriko Argia" eskulturaren X.urteurrena ospatuko da azoka egunean.

Urriaren 14an egingo da aurten Zizurkilgo azoka bereziaren XV. edizioa. Ohi bezala, ekitaldiz betetako eguna antolatzen ari dira Udala eta herritarrek, baina aurtengoak badu marka berezi bat: Emakume baserriarraren lana aitortzeko Zizurkilen ezarri zen "Baserriko Argia" eskulturak hamarkada bete du.

Zizurkilgo Udala eta EBEL Emakume Baserriarren Elkartearen arteko elkarlanak egin zuen posible eskulturaren ezarpena, eta hamargarren urteurrenaren aitzakian, eskultura horrek ikur bezala duen balioa berretsi nahi izan da. "EBEL-ekin harremanak berreskuratu ditugu eta elkarren artean ekitaldi xume bat egingo dugu, baina protagonistak emakume baserriarrak izatea nahi dugu", azaldu du Eva Usandizaga parekidetasun zinegotziak. Eskulturaren ondoan, azalpen eta argazkiez osatutako panel txiki bat jarriko da eta hori inaguratuko dute azoka egunean. "Goizeko 11etan, plazatik trikitixarekin abiatuta joango gara eskultura, eta azokan postua duten emakume baserriarrak izango dira plaka bistaratuak dutenak. Ekitaldi xume eta hunkigarria izatea nahi dugu", azpimarratu du Usandizagak.

50 postu denera

Goizeko omenaldi ekitaldiarekin hasiera emango zaion azoka egunak ez du aspertzeko betarik utziko. Zizurkilgo baserriarren 7 postu, beste 17 elikagai postu eta 23 artisau izango dira hurbiltzen direnen gozagarri. Haurrentzako pottokak ere izango dira, aurpegia margotzeko txokoarekin batera. Eguerdian, Zizurkilgo baserriarren postu onena sarituko da eta noski, herri bazkaria ere izango da aurten zimenterioan. Txartelak egun batzuk lehenago jarriko dira salgai herriko jatetxeetan. "Zizurkilgo baserriarren postuetan erosiz gure baserriarrei laguntzeko deia egin nahi genuke", nabarmendu du Aitor Sarasua nekazaritza zinegotziak.

Giza proba

lazko arrakasta ikusita, eguna amaitzeko Gipuzkoako Giza proba txapelketa jokatu da Plazaberrin. 18:30etan hasiko da eta aurrez sailkatu diren Urretxu, Berrobi, Aiztondo eta Oriko ariko dira nor baino nor bi txandatar. "Ordurdi atzeratu dugu hasiera ordua postuetakoek arratsaldean ere salmentarako tartea handiago izan dezaten",



azaldu du Aratz Alkorta kirol zinegotziak. "Lehia ikusgarria izango da aurten ere, bi talde elkarrekin batera lanean ikusten diren plaza bakarra baita Zizurkilgoa".

Argi dago beraz, Urriaren 14an ez dagoela aitzakiarik

Zizurkilera ez etortzeko. Ohi bezala, autobusa ibiliko da doan Elbarrenatik Zizurkil Gora bidean, Zaldua pareko biribilgunean eta Zubiaurretxoko bidegurutzean egingo du geldialdia. Gozatu azoka eguna!

Azoka Eguna, de aniversario

El 14 de octubre se celebrará la XV edición de la "azoka berezia" de Zizurkil. Este año, con un aniversario destacado, ya que la escultura "Baserriko Argia" cumple 10 años. Esta obra se instaló en Zizurkil gracias a la colaboración entre el Ayuntamiento y EBEL, la asociación de mujeres baserriarras, y quiere reconocer la labor que las mujeres baserriarras han hecho durante siglos. Este año, coincidiendo con el aniversario, se ha querido impulsar este símbolo y, por

ello, a las 11:00 de la mañana, se celebrará un sencillo acto junto a la escultura, con el protagonismo de las mujeres baserriarras.

50 puestos

En la XV edición se mantendrá el número de puestos de otros años. Habrá puestos de baserriarras de Zizurkil, otros puestos de alimentación y, cómo no, puestos de artesanía, 50 en total. A la tarde, se celebrará el II. Campeonato de Gipuzkoa de Giza Proba.

DOLORES EIZMENDI



Zizurkilgo Udala

Plaza Berri Aldizkaria
Herritarren Parte Hartze
eta Komunikazio Batzordea.

Lege-gordailua:
SS-1118-2011

Harremanetarako:
plazaberri.zizurkil@gmail.com
www.zizurkil.com

Zizurkilgo Udala,
Teodoro Hernandorena 6,
20.159 Zizurkil.
Tel. 943-691012
Fax 943-693200.

Udal Bulegoak, Aurrera Plaza 3,
20.159 Zizurkil.
Harrera Orokorra
Tel. 943-693066
Kultura, Euskara, Hezkuntza,
Gazteria y Kirola Saila
Tel. 943692495
Fax 943-693674.

“Lehortea nabarmen sumatu da baratzean”

Beste emakume asko bezala, “baserriko argia”

Ugarte baserrian jaio eta Andrezketara ezkondua, bizitza osoa daramazu baserrian. Zertan aldatu da zuen lana urteotan?

Erabat aldatu da. Lehen dena eskuz egiten zen, guzti guztia, bai kanpoko lanak eta bai etxekoak. Gero, ni ezkondu nintzen garaian, segadora bat ekarri zutela gogoratzen naiz, baina beste guztia idiekin, gurdiekin... egiten zen. Orain alde horretatik lana errazagoa da.

Beraz, orain baserriko bizimodua ez da hain gogorra?

Gogorra, lan aldetik ez. Baina irabazirik ez dago. Lehen gutxierekin gehiago ateratzen zenuen. 8-9 behirekin, eskuz lana eginda irabazi egiten zenuen orduan, eta orain, bai zera!

Eta Zizurkil asko aldatu al da?

Bai, asko aldatu da azken hamarkadetan. Guk ezagutu genuen Zizurkil erabat baserritarra, bai Zizurkil

Goia eta bai Elbarrena. Orain dena aldatu da. Elbarrenan etxe mordoak egin zen eta herri handia dago, eta goian ere baserrian aritzen zirenak gehiago ziren lehen.

Zizurkilgo azokak zer prestaketa lan eskatzen ditu?

Ni daukadanarekin joaten naiz. Saiatzen naiz produktu ezberdinak eramaten. Ea aurten... Izan ere, lehortea nabarmen sumatu da baratzean, babarrunari esaterako erasan dio. Ura ematen saiatzen gara baina ez da gauza bera. Eguraldiak agintzen du oraindik ere. Lanean aritu eta gero, askotan etsigarria izaten da, baina horrela da gure bizia.

Zer moduzko uzta eramango duzu aurten?

Eguraldiak laguntzen badu ondoko asteetan, denetik eramatea espero dut: Porrura, azenarioa, babarruna, erremolatxa, borraja, koto goiloak, letxuak, bainak, in-txaurrak... dena etxekoak.

Nola ikusten duzu baserriaren etorkizuna?

Gaizki. Zerekin egin behar da lana, berdurarekin? Haragiarekin? Gaur egun, baserriak bizitza oso zaila da. Baserria eranskin bat da, baina hortik bizimodua ateratzen asko kostatzen da. Gazteek bizimodua ikusiko balute, agian animatuko lirateke baina horretarako aldaketa handia gertatu behar da.

Emakume baserritarrek urte askotan isileko lan handia egin duzue. Aitortu zaizuela uste al duzu?

Ezinezkoa da gure denborako emakumeek egindako lan hori guztia aitortzea. Etxean eta kanpoan, bietan egin behar genuen lan, jatenetan eta baratzean bezala labaderoan arropak garbitzen aritu, eta umeak etxean bazenituen ere bai... Orain gauza hobeto dago.

Herritarrek Txapel Eguneko txapelkun izendatu zintuzten 2008an. Nola gogoratzen duzu momentu hori...

Gogoratu, pozik, baina hasieran esan nuen, zergatik niri? Gu ez gaude ohituta horrelako gauzetarako eta urduritasun puntua ematen du. Baina egia esan, gero gustura igaro nuen eguna.

Esaiguzu...

Zizurkilgo txoko kuttun bat:

Ni neu bizi naizen inguru hau. Bertan ibiltzen gara gehienez eta ezin beste txoko bat esan.

Herriko pertsonaia bat: Emakume baserritar guztiak.

Zer dago soberan edo faltan?

Nik ez dut faltarik aurkitzen. Niretzat nahikoa da dagoena, gazteek esango dute beste zerbait.